

**8/2019 INSTRUKZIOA, OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, 5/2019 INSTRUKZIOAREN INDARRALDIA LUZATZEN DUENA, LEHEN MAILAKO ARRETAREN ARLOAN BARRUKO HITZARMENEN KUDEAKETA HOBETZEKO PROGRAMEN BARRUAN DAUDEN EDO BEREZKO BALIABIDEAK DITUZTEN OSAKIDETZAKO ASISTENTZIA UNITATEETAN ZERBITZUAK EMATEN DITUEN PERTSONALARI PRODUKTIBITATE-OSAGARRIA APLIKATZEKO IRIZPIDEEN HARIRA.**

5/2018 Instrukzioak ezartzen ditu uztailaren 21eko 206/1992 Dekretuaren prozeduraren eta Dekretu hori garatzen duen egun bereko Aginduaren garapenerako irizpide orokorrak, Lehen Mailako Arretaren, EAGaren eta Emergentzien arloetan Osakidetzaren Asistentzia Unitateen baliabideekin kudeaketa sanitarioa hobetzeko programaren barruan, eta Lehen Mailako Arretako Pediatriako eta Familia Medikuntzako Pertsonal Fakultatiboari eta EAG eta Emergentzietako Pertsonal Fakultatiboari aplikatzen zaie, hala finkoei nola bitarteko edo behin-behineko langileei.

Gerora, Instrukzio hori Zuzendaritza Nagusi honen 5/2019 Instrukzioak aldatu zuen, ekainetik irailera bitarteko (biak barne) estaldura asistentzialeko planetik eratorritako beharrei erantzun egokia emateko, Osakidetzako zerbitzu-erakunde guztietako Lehen Mailako Arretako eremuan instrukzioaren aplikazio homoginoa bermatzeko irizpide bateratuekin.

Planteatutako beharren arabera, baita egutegiaren eta aurreikusitako jardueren programazioaren arabera ere, eta 5/2019 Instrukzioan xedatutako neurrien ezarpena ebaluatzeko zain dagoenez une honetan, beharrezkoa da Instrukzioa hilabetez mantentzea indarrean.

Azaldutakoaren ondorioz, eta Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusiari dagozkion eskumenez baliatuz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak onartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 11 b) artikuluari jarraikiz eta 1991ko uztailaren 21eko Aginduaren 2. artikuluan eta lehenengo azken xedapenean ezarritakoa betez, honako instrukzioa eman da:

### **INSTRUKZIOA:**

**Lehena:** Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren 5/2019 Instrukzioaren indarraldia hilabetez luzatzea, 2019ko urriaren 31ra arte. Epealdi horretan bere osotasunean aplikatuko dira 5/2019 Instrukzioan ezarritako neurriak eta irizpideak, bertan adierazitako moduan.

**Bosgarrena:** Instrukzio hau web korporatiboan eta Osakidetzaren intranetean argitaratuko da, eta 2019ko urriaren 1ean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 1ean



**OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO  
ZUZENDARI NAGUSIA**